

Ikurriña ontzietan eta nekazarien sindikatoa

Deia, 1977-08-14.

Bi gaiak ez dute elkarrekin zerikusirik.

Biak lotzen dituenak, gaurkotasuna eta oraindik lortu gabeko arauketaren beharra dira.

Goazen *ikurriña gai dela* gaur agertu diren bi berrirekin lehendabizi: Lekeitio-ko itsasontzi baten nagusiari Guardiazibilak dei egin eta ontzi-mastan zeukan ikurriña jesteko agindu diote; ia baimenik bazuen; hontarako baimen berezirik ez zuen, noski. Espainola han zeukanez, agindua dagoen bezala, ba dirudi besteak ere alboan egoteko eskubidea berezkoa duela. Baina egun berean, Barcelona-ko itsas-ontzi guztiak batera katalana jaso dute espainolaren aldamenean; zergatik?: Barcelona probintziako arrantzaleen kofradien buru den Antonio Marzoa Dopico jaunak proposatua eta denak pozik onartua izan delako.

Hara, bada, euskaldunok egin behar duguna: katalanen antzeko iniziatiba bat hartu, eta aurrera.

Legalitate xeblere hoietan behar izaten den aurretiko edo prezedentea hor dago.

Eta beste gaia: *Nekazarien sindikatoa*.

Sindikalgintzan aspaldi izan dira gure herrian istiluak, baina ez da nekazarien sindikato aldetik ezer aitatu. Eta honetxek ba du, ba, gure artean tradizioa.

Ni Gipuzkoa-koaz gogoratzen naiz gehien.

Joan berria den "Eguneko" batean aitatu nuen gaia. Eman du lehen emaitza. Handik, Gipuzkoatik etorri da lehenengo berria.

Andoni Lekuona-k bidali dit idazlan bat hontaz.

Gipuzkoan ba zen don Poli Larrañaga-k sortutako erakunde bat: "Euzko Nekazarien Bazkuna". Don Poli eibartarrak sindikalgintzan lan asko eta ona egin zuen, eta nekazarien aldekoa egitera ere iritxi zen. Andoni-k dionez, Bizkaian beste bat ba zen: "Euzko Nekazarien Alkartasuna", ENA, hau ere lan asko eta ona egina.

Hala, batetik ENB giputza eta besetik ENA bizkaitarra.

Behar bada elkarrekin egin behar lukete lan.

DEIA-n Lekuona-k idatzitako lanak erakusten du Gipuzkoa-koa zertan den; orain bizkaitarren berri zai geratzen gara.